

ALKATEAREN PROPOSAMENA

Izaro Elorza Arregui andrea, Oñatiko Udaleko alkate-presidentea, legediak ematen dizkidan eskumenak baliatuz.

Gaia: Artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko 1º deialdiaren likidazioa eta 2. deialdiaren ebazpen proposamena (2024ZDKO0009) (2024ZDKO0027)

“ Aitor Gerenabarrenak (Ingurumen eta Landa garapen teknikariak eta batzordeko idazkariak) abenduaren 10ean egindako bileran (CSV zkia: SINAb694572-42d1-4879-bfa8-bedacfe7a3fe) honako PROPOSAMENA onartu zela:

2024ko otsailaren 29an Udal Osoko Bilkurak egindako bileran Oñatiko Herri Onurako Mendietako artzain txaboletan egindako lanak diruz laguntzeko oinarri arautzaileak eta 2024ko aurreneko dirulaguntza deialdia onartu ziren.

Gerora, Udal Tokiko Gobernu Batzarrak irailaren 12an egindako bileran, bigarren dirulaguntza deialdi bat egitea adostu zen. Bigarren deialdia 2024ko irailaren 26an argitaratu zen GAOn.

2024ko azaroaren 12an Landa Garapen Batzordeak egindako bileran, besteak beste, deialdiak ezarritako epe-mugan jaso diren eskaeren berri eman zen: Miren Itziar Ugarte Ugarte andreak eta Gesaltza E.Z.-ak egindakoak.

Oinarri arautzaileen 4. atalak xedatutakoaren arabera, laguntza hauen onuradunak izango dira Oñatiko Herri Onura Mendietan dauden artzain txabolen erabiltzaileak. Miren Itziar Ugarte Ugarte andreak Tellatxabola I eta II izeneko artzaintza-txabolak erabiltzeko kontzesioa du. Gesaltza E.Z.-ak Malla-gain deritzen txabolak erabiltzen ditu, Ramon Ugalde jaunak (Azkarreta) bere artzaintza jarduera utzi zuenetik (1995/04/27 OB akordio bidez kontzesioan utzita)

Hortaz, biek onuradun izateko baldintzak betetzen dituzte.

Miren Itziar Ugarte Ugarte andrearen izenean dagoen ES200590070093 Elorrixa ustiategiak zein Gesaltza E.Z.-ren ES200590070674 ustiategiak betetzen dute oinarri arautzaileen 5. atalak xedatutakoa “*Nekazaritza ustialekuak bete beharreko baldintzak*”.

Oinarri arautzaileen 11. atalak xedatutakoaren arabera deialdiak ezarritako epe-mugan diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztu beharko da. Miren Itziar Ugarte Ugarte andreak eskaera berean aurkeztu ditu 1º deialdiko justifikazioa eta 2. deialdirako eskaera. Guztira, 11.259,09 € BEZa gabeko gastuak justifikatu ditu:

sarrera zk	Eskatzailea	HOMko txabola	gastuaren deskribapena	gastu proposamena BEZa gabe	laguntza kategorია	laguntza %-tan	Esleitutako laguntza €-tan	likidazioa €-tan BG	2 deialdirako gastu proposamena €-tan BG
5996	Miren Itziar Ugarte Ugarte	Tellatxabola	tximinoa konpontzea	570,00 €	7*2	25,00%	142,50 €	570,00 €	0,00 €
5996	Miren Itziar Ugarte Ugarte	Tellatxabola	barruko hormak raseatzea	2.072,00 €	7*3	25,00%	518,00 €	2.072,00 €	0,00 €
5996	Miren Itziar Ugarte Ugarte	Tellatxabola	zoadura hormigoizatzea	774,80 €	7*3	25,00%	193,70 €	1.558,29 €	783,49 €
5996	Miren Itziar Ugarte Ugarte	Tellatxabola	putzu septikoa jartzea	2.310,00 €	7*4	75,00%	1.732,50 €	4.075,00 €	1.725,00 €
5996	Miren Itziar Ugarte Ugarte	Tellatxabola	sarrerako atea jartzea	868,50 €	7*4	75,00%	651,38 €	828,50 €	-40,00 €
5996	Miren Itziar Ugarte Ugarte	Tellatxabola	barruko egokitze lanak	0,00 €	7*3	75,00%	0,00 €	370,00 €	370,00 €
5996	Miren Itziar Ugarte Ugarte	Tellatxabola	sarrerako atea	0,00 €	7*4	0,00%	0,00 €	970,00 €	970,00 €
5996	Miren Itziar Ugarte Ugarte	Tellatxabola	barruko iturgintza lanak	0,00 €	7*3	0,00%	0,00 €	815,30 €	815,30 €
				6.595,30 €			3.238,08 €	11.259,09 €	4.663,79 €
							49,10%		0,00 €

Oharra: atepak jartzeko lanetan, justifikatzeko faltan diren 40 euroak bigarren deialdirako gastu proposamenetik kentzen zaizkio

Hortaz, Udalak 1º deialdian esleitutako 3.238,08 €-ak justifikatuta gelditzen dira.

Bigarren deialdiari dagokionean, oinarri arautzaileen 8. eta 9. atalek xedatutakoaren arabera ondorengo taulen laburbiltzen da, hurrenez hurren, eskaeraren balorazioa eta laguntza proposamena.

sarrera zk	Eskatzailea	HOMko txabola	gastuaren deskribapena	gastu proposamena BEZa gabe	laguntza kategorია	laguntza %-tan	Esleitutako laguntza €-tan
6161	Gesaltza E.Z.	Malla-gain	putzu septikoa jartzea	1.974,00 €	7*4	75,00%	1.480,50 €
6161	Gesaltza E.Z.	Malla-gain	putzu septikoa jartzea	2.960,00 €	7*4	75,00%	2.220,00 €
			2. deialdia	4.934,00 €			3.700,50 €
							75,00%

sarrera zk	Eskatzailea	HOMko txabola	gastuaren deskribapena	gastu proposamena BEZa gabe	laguntza kategorია	laguntza %-tan	Esleitutako laguntza €-tan
5996	Miren Itziar Ugarte Ugarte	Tellatxabola	zoadura hormigoizatzea	783,49 €	7*3	25,00%	195,87 €
5996	Miren Itziar Ugarte Ugarte	Tellatxabola	putzu septikoa jartzea	1.725,00 €	7*4	75,00%	1.293,75 €
5996	Miren Itziar Ugarte Ugarte	Tellatxabola	sarrerako atea	970,00 €	7*4	75,00%	727,50 €
5996	Miren Itziar Ugarte Ugarte	Tellatxabola	barruko egokitze lanak	370,00 €	7*3	25,00%	92,50 €
5996	Miren Itziar Ugarte Ugarte	Tellatxabola	barruko iturgintza lanak	815,30 €	7*3	25,00%	203,83 €
			2. deialdia	4.663,79 €			2.513,45 €
							53,89%

Oinarri arautzaileen 10. atalak xedatutakoaren arabera laguntza emateko ebazpena eman edo, dagokionean, ukatzeko ebazpena Udal Tokiko Gobernu Batzarrak eman beharko du.

Gaia aztertu ondoren, Landa Garapen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Tokiko Gobernu Batzarrari jarraian jasotzen den diru-laguntza proposamena onar dezala:

Lehena: Miren Itziar Ugarte Ugarte andreak 1º deialdian esleitutako laguntzaren justifikazioa onartzea.

Bigarrena: 2 deialdian honako laguntza proposamenak onartzea diru-atala agortu arte, 8. atalak xedatutakoaren arabera, jarraian azaltzen den lehentasunari jarraituta:

- 3.700,50 €-ko laguntza Gesaltza E.Z.-ri
- 2.513,45 €-ko laguntza Miren Itziar Ugarte Ugarte andreari

Hirugarrena: oinarri arautzaileen 11. atalari jarraituta laguntzaren %100a aurrerakin bezala ematea.

Laugarrena: oinarri arautzaileen 11. atalari jarraituta 2024ko abenduaren 31a aurretik egin beharko litzateke dirulaguntzaren justifikazioa. Kontuan izanda, urte bukaeran ebatzi dela laguntza, 2025eko maiatzaren 1a epe-muga ezartzea laguntza justifikatu ahal izateko. Laguntza justifikatzeko ondoko edukia aurkeztu beharko da:

*.- Jarduera memoria bat, egindako ekintzak biltzen dituen

*.- Egindako inbertsioei dagozkien fakturak/ziurtagiriak eta, kasua bada, ordainagiriak

.- Entitate onuradunak lagundutako jarduera finantzatzeko beste diru-sarrera edo laguntzaren bat jasotzen badu, horren zenbatekoa eta jatorriari buruzko informazioa.

Oñatin, 2025eko urtarrilaren 14an

Alkatea

Sin.: Izaro Elorza Arregui andrea.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

alk pro artzai txabo

CSV/EKS:

SINA6294adb-7c86-476e-922b-bf176cac9848